

ZUMARRAGAKO BARAZKI, FRUTA ETA ERREZIL SAGARREN SARIKETA 2024

1.- BARAZKI, FRUTA ETA ERREZIL SAGARRAK

Partaideek norberak landutako barazki, fruta eta errezil sagarrak aurkeztu beharko dituzte.

Sariketak hiru atal berezi izango ditu:

- a) Barazkiak.
- b) Frutak.
- d) Errezil sagarrak.

2.- SARIKETAKO EPAIMAHAIA

Sariketako epaimahaia Zumarragako alkateak izendatuko du zinegotzi arduradunaren proposamenaren arabera, eta horretarako kontuan hartuko da gai honetan adituak diren erakunde publiko nahiz pribatu edo jakitunen iritzia.

Epaimahaia gutxienez bi teknikarik osatuko dute, eta gehienez bostek, guztiak gai honetan adituak izango direlarik. Teknikari horietako bat Epaimahaiko idazkaria izango da, eta erabakia agiri batean jasoko du. Erabaki agiriak udaletxeko Idazkaritzan egon beharko du abenduaren 13ko goizeko 12,30ak baino lehen.

Udalek izendatuko dituzten administrazio langileen laguntza jasoko du Epaimahaiak.

Aldez aurretik jakingo da zein diren epaimahaikideak.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horretarako honako irizpideak hartuko ditu kontuan:

3.- KONTUAN HARTUKO DIREN EZAUGARRIAK

- a) Kalitatea (tamaina, ekologikoa izatea, itxura, kolorea, heldutasun puntua...).
- b) Aurkezteko era.
- d) Aniztasuna.

4.- SARIKETAKO BALDINTZAK

Zumarragako Santa Lutzitako urteroko lehiaketan parte hartzeko :

1. **Nekazaritzako Baserri erregistroaren agiria aurkeztea.**
2. **Barazkiak:** gutxienez 4 barazki mota aurkeztu beharko dira: mota bakoitzeko bi kilo gutxienez. Aleka saltzen diren produktuak, gutxienez dozena bat, mota bakoitzeko.
3. **Fruta:** gutxienez 4 fruta mota aurkeztu beharko dira eta gutxienez 2 kilo mota bakoitzeko.
4. **Errezil sagarrak:** gutxienez 10 kilo sagar ekarri beharko dira.

Interesatuak alde zuzen izena eman beharko du **Zumarragako udaletxean, azaroaren 21eko eguerdiko ordu biak baino lehen**; 943-72.35.10 telefonora deituz ere egin daiteke.

Izena ematerakoan, honako datuok ekarri beharko dira:

- Lehiakidearen izena, helbidea eta NA zenbakia.
- Nekazaritzako baserri erregistroaren agiria.
- Zein sariketan parte hartu nahi duen adierazi beharko da.
- Kontu zenbakia (20 digitu)

Postuak goizeko 9etarako jarri beharko dira, eta ordu horretarako jarri gabekorik ez da onartuko. Bakoitza non jarri Udalak erabakiko du.

5.- SARIAK

BARAZKI ETA FRUTA SARIKETA

ERREZIL SAGARREN SARIKETA

Sari kategoriara iristen direnek, (gehienez 4) 300 euroko saria jasoko dute.	Sari kategoriara iristen diren guztiek, (gehienez 4) 175 euroko saria jasoko dute.
Ezkio, Gabiria, Itsaso, Legazpi, Ormaiztegi, Urretxu eta Zumarragako saridunei 125 euroko gehigarria emango zaie.	

Epaimahaiak, atalen batean edo atal guztietan, saria merezi duenik ez dagoela ebatziz gero, sari hori eman gabe utz dezake.

Saria jasotzen dutenek garaikurra ere izango dute.

Sariketako baldintzak betetzen dituztenek 125 euroko dieta jasoko dute, baina nolana ere dieta bakarria emango da baserriko (beraiek emandako kontu zenbakian sartuko zaie dirua).

Sariak Kalebarren-Areizaga plazan banatuko dira, Santa Lutzi egunean bertan, eguerdiko 13:30ean hasiko den ekitaldian.

Lehiakide sariduna sari banaketan ageri ez bada, sariari uko egin diola ulertuko da.

6.- OHARRAK

1.- **Epaimahaiak komenigarria ikusten badu, produktuen benetakotasuna ziurtatzeko bisita bat egingo du.**

2.- Sariketan parte hartzeak berekin dakar jarritako baldintzak onartzea.

3.- Parte hartzaile guztiei bertako produktuak saltzeko aukera eskainiko zaie.